

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### GIZARTE POLITIKEN SAILA

**Informazioa, sentsibilizazioa, gizarte-prebentzioa eta-sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntariora xede dituzten jardura eta ekintzetarako laguntzak emateko Vitoria-Gasteizko Udalaren deialdiaren berriazko oinarri arautzaileak 2026rako**

2026ko martxoaren 6an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizen gizarte-proiektuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak emateko deialdia eta hura arautuko duten oinarriak 2026rako.

#### Gizarte Politiken Saila

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen, eta jendurrean jartzeko epean ez zen ez erreklamaziorik ez iradokizunik aurkeztu. 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn (88. zenbakia) argitaratu zen ordenantza, eta udalaren webgunean ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) nahiz herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daiteke.

Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten, nola ezagutarazi behar dituzten dirulaguntzak eta abar.

#### 1. Arautzea

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak, bertan aurreikusitakoaz gain, honako hauen arabera arautuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua), eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra zeinaren helburua baita Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozedura arautuko duten oinarri orokorrrak ezartzea. Ordenantza horri 2023ko apirilaren 21an eman zitzaion hasierako onespina, eta 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen.

Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten entitate eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten, dirulaguntzen publikitatea eta abar.

Vitoria-Gasteizko Udalak, Vitoria-Gasteizko udalerrian gizarte ekimenak sustatzeko asmoz, esparru horretan diharduten elkarte zein entitateei bere Gizarte Politiken Saileko aurrekontuaren kontura emango dizkie dirulaguntza hauek.

#### 2. Deialdiaren Xedea

Informazioa, sentsibilizazioa, prebentzioa eta gizarte-sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntariora xede duten eta 2026an gasteiztarrei zuzentzen zaizkien jardura eta ekintzak, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren eskumenekoak badira, eta baldin eta udaleko beste sail baten dirulaguntza deialdi espezifiko baten xede ez badira.

### 3. Dirulaguntzen plan estrategikoa

Deialdi hau Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko urtarrilaren 17an onartu zuen eta indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren (2025-2027) dirulaguntza-ildo/ekintza honen barruan sartzen da: ekintza solidarioen edo boluntariotzaren sustapena xede duten informazio, sentsibilizazio, prebentzio eta gizarte sustapeneko jarduera eta ekintzetarako dirulaguntza deialdia.

Vitoria-Gasteizen, aldian aldiko urtean, gizartea informatu eta sentsibilizatzea, edo gizarte-prebentzio zein-sustapenera ere bideratuta antolatzen eta garatzen diren jarduerak eta proiektuek, Gizarte Politiken Sailaren eskumenekoak direnak, eragindako gastuak ordaintzen laguntzea du xede; hori guztia, eremu horretan jarduten duten elkarte eta erakundeek Vitoria-Gasteizko udalerrian gizarte-ekimena sustatzeko asmoz.

### 4. Kontzeptua

Lau kontzeptutarako emango dira dirulaguntzak. Proiektu bakarra aurkeztu ahalko dute entitateek, kontzeptu bakarrerako.

– 1. kontzeptua: udal gizarte zerbitzuen eskumen-esparruaren barruko prebentzio eta sustapen proiektuak: norberaren autonomiarekin, gizarte-inklusioarekin eta gizarte-larrialdi edo -babesgabetasun egoerekin zerikusia duten beharrei arreta egitea, eta batez ere arrisku egoeren prebentzian.

– 2. kontzeptua: gizarte alorrean herritarrei, gizarte-eragileei eta entitateei zuzenduriko informazio, prestakuntza eta sentsibilizazio proiektuak.

– 3. kontzeptua: gizarte arretarako proiektuak: adineko autonomoei, mendekotasun-arriskuan eta 1 mailako mendekotasun-egoeran daudenei, babesik gabeko haur eta nerabeei eta gizarteak baztertutako pertsoneri eta horien guztien familiei zuzenduak.

### 5. Entitate Onuradunak

Deialdian elkarte, fundazioek eta irabazi-asmorik gabeko entitateek parte hartu ahalko dute, baldin eta honelako ekintzak egitea esanbidez jasota badaukate beren estatutuetako xedeetan: gizarte-prebentzioari eta -sustapenari loturiko ekintzak, edo zailtasun sozialeko egoeran dauden pertsoneri elkartasuna adierazteko eta laguntzeko ekimen zuzenak egitea xede dutenak.

Diru-laguntza eskatzen duten entitateek Vitoria-Gasteizko udalerrian izan beharko dute helbidea, eskatzaileak udalaz gaindiko entitateak diren kasuetan izan ezik; kasu horietan, dirulaguntzaren xede diren ekimenak Vitoria-Gasteizko udalerrian egin behar dira eta udalerriko biztanleei egon behar dute zuzenduta, betiere 4. oinarrian zehaztutako kontzeptuetara egokituta. Horretaz gain, entitate eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean —edo EAEn dagokien Erregistro Publikoan— izena emanda egon behar dute, eta datuak eguneratuta eduki.

Horrez gain, entitate eskatzaileak onuradun izan daitezten, ezin dira egon dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 11.2 artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku-egoeretakoren batean.

### 6. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honen ildotik ematen diren laguntzak Gizarte Politiken Sailaren 2026ko ekitaldiko aurrekontuetako 11.11.2301.480.45 partidaren jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; beraz, gehienez 125.000,00 euro baliatu ahal izango dira horretarako.

### 7. Konkurrentzia-erregimena

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, 11. oinarrian ezarritako balio-espen-irizpideen arabera. Aurrekontua proportzionalki banatuko da, balioespen teknikoan ezarritako gutxienezko puntuazioa lortzen duten proiektu guztien artean; puntuazio-tartean arabera egongo da hori, proiektu bakoitzaren balioespen teknikoan lortutako gutzizko puntuazioa kontuan hartuta.

## 8. Aurkezteko epea eta modua

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, oinarri hauei dagokien deialdiari buruzko laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteizko Udalaren 2026. urteko dirulaguntzen eta laguntzen deialdietarako ereduaren arabera —zeina udalaren webgunean eskuragarri baitago: [www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak](http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak)—, eskabideak Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>.

Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu beharko dira, erregistro elektronikoen bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://egoitza elektronikoa.vitoria-gasteiz.org> helbidean ezarritakoari jarraituz.

Dirulaguntza-eskabidean espresuki aipatu beharko da 18. ildo. Gizarte Politikak, “informazioa, sentsibilizazioa, prebentzioa eta gizarte sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntariora xede dituzten jardura eta ekintzak”.

Kanal elektronikoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan aipatzen direnentzat.

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorreko 20.4 artikuluari jarraikiz, eskabideak deialdian xedatutako baldintzak bete ezean, organo eskudunak errekerimendua egingo dio interesdunari, gehienez ere 10 eguneko epean, hutsak zuzen ditzan. Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

## 9. Ez da dirulaguntzarik emango honelakoetarako

— Sexu, genero, adin, jatorri, erlijio eta abarregatik zuzeneko edo zeharkako bereizkeria dakarten proiektu edo programa sozialak, giza eskubideak urratzen dituztenak edo zuzenbidearen aurkakoak direnak.

— Gizon eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea urratzen duten gizarte proiektu edo programak.

— Udaleko beste sail baten edo lurralde historiko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko beste entitateen baten berariazko eskumenekoak diren jardura edo ekintzek osatutako proiektuak. Ildo horretatik, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalen gizarte zerbitzuei dagokie lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen hornidura eta prestazioa bermatzeko eskumena; horiek erabiltzaileei gizarte-zerbitzuen sistema osora iristea ahalbidetuko diete eta norberaren autonomiarekin, gizarte-inklusioarekin eta gizarte-larrialdi edo -babesgabetasun egoerekin zerikusia duten beharrak beteko dituzte, arreta berezia emanez arrisku egoeren prebentzioari.

— 2026an Gizarte Politiken Sailaren 10.000,00 eurotik gorako dirulaguntza izendunen onuradun diren entitateen proiektuak.

— Udalaren beste sail batzuetako dirulaguntza-deialdietara aurkeztutako edo beste sail batzuetako dirulaguntza izendunen onuradun diren proiektu, jardura edo ekintzekin alderik ez dutenak, nahiz eta dirulaguntza 10.000,00 eurotik beherakoa izan.

— Deialdiaren xedean sartzan ez diren proiektu, jardura eta ekintzak.

— Urte berean udaleko beste sail batzuen dirulaguntzen deialdira aurkeztu diren proiektuak.

## 10. Programa edo jarduera bakoitzari gehienez emango zaion dirulaguntza

Proiektu bakarrerako eskatu ahal izango du dirulaguntza entitate bakoitzak, gehienez 10.000,00 eurokoa. Guztira, gehienez 30.000,00 euroko aurrekontua izan ahalko dute aurkezten diren proiektuek. Proiektuak ezingo dira zatitu ekintzetan ezta iraupen osoa baino laburragoak diren epeetan zenbateko horretara doitzeko. Bi kopuru horietakoren bat gainditzen duten proiektuak deialditik kanpo geratuko dira. Lantegi eta ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak edota antzeko ekimenak egiteko kontratazioari dagozkion gastuetan, diruz lagundu daitekeen gehieneko muga 120,00 eurokoa izango da, jarduerak irauten duen ordu bakoitzeko —zergak eta Gizarte Segurantzaren barne—, barne hartzen direlarik joan-etorrien, koordinazioaren, prestakuntzaren, gauzatzearen eta ebaluazioaren denborak.

Deialdiaren baldintzak eta irizpideak bete dituzten proiektuetako bakoitzari emango zaion zenbatekoa kalkulatzeko, onartutako eta balioetsitako eskabideak alderatuko dira, eta, hala, haien arteko lehenetsun-hurrenkera ezarriko da. Aurrekontu-zuzkiduraren zenbateko osoa era proportzionalan banatu da, lortutako puntuazio-tarteen eta eskatutako zenbatekoaren arabera.

Deialdi honen baitan eskura daitekeen dirulaguntza bateragarri izango da beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin ematen dituen laguntzekin, laguntzen zenbateko guztiak proiektuaren aurrekontua gainditzen ez badu. Horretarako, eskatzaileek aurkeztutako proiekturako eskatutako eta lortutako laguntza guztiak aitortu beharko dituzte.

## 11. Balioespen irizpideak

Eskabideak jaso eta izapidetzeko onartu ondoren, eta balioespen batzordeak deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, balorazio-txostena emango da, balioespen-irizpide hauen arabera:

1. Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. Gehienez 40 puntu.

Kontuan hartzekoak:

a) Aurrekontua proiektuaren neurrira egokitzea: Gehienez 10 puntu.

Kontzeptu bakoitzaren aurrekontua proiektuaren edukira egokitzea, baita benetako kostura ere, merkatuko prezioaren arabera.

b) Finantza-ketaren definizioa eta banaketa: gehienez 10 puntu.

Proiektu zehatz eta espezifikokoaren aurrekontu-banaketa eta -banakapena, proiektuan ezarritako ekintzen arabera.

c) Entitateak gai horretan duen eskarmentua: gehienez 8 puntu.

d) Entitatearen batzarraren, zuzendaritza-organoaren edo administrazio-kontseiluaren osaera: gutxienez ehuneko 50ean emakumeek parte hartzea: gehienez 2 puntu.

e) Entitatearen antolakuntza- eta kudeaketa-moduak: gehienez 5 puntu.

Entitatearen antolakuntzaren eta barne-kudeaketaren deskribapena.

f) Entitateak hirian egindako bidea: gehienez 5 puntu.

Oharra:

Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren irizpidean 20 puntura (horietatik 8 puntu bideragarritasun ekonomikoari lotuta egon behar dira) iristen ez diren proiektuak ez dira kontuan hartuko dirulaguntza emateko orduan.

Atalen kalitatearen eta xehetasunen arabera emango da puntuazioa, hau da, zenbat eta zehatzagoak izan, orduan eta handiagoa izango da puntuazioa.

2. Zerbitzuaren edo programaren gizarte- eta komunitate-onura. Gehienez 40 puntu.

Balioesten diren alderdiak:

- a. Biztanleriak duela egiaztatu den eskari eta/edo premia bati erantzuten dio: gehienez 8 puntu.
  - b. Administrazioaren erantzuna osatzen du: gehienez 8 puntu.
  - c. Boluntariora sustatzen du: gehienez 6 puntu.
  - d. Gizarte-sareak eta gizarte-laguntza errazten dituzten testuinguruak diseinatzen eta planifikatzen ditu: gehienez 6 puntu.
  - e. Kaltetuek beren arazoak konpontzen parte har dezaten sustatzen du: gehienez 6 puntu.
  - f. Herritarrak, oro har, sentsibilizatu eta informatzea: gehienez 6 puntu.
3. Lehentasunezko helburuak eta Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren plangintza, xede eta helburuekin bat etortzea. Gehienez 20 puntu.

Kontuan hartzekoak:

- a. Proiektua Sailaren helburuetara egokitzea (gizarteratzea sustatzea, zaugarritasun- eta/edo bazterkeria-egoerak prebenitzea, autonomia hobetzea, etab.): gehienez 7 puntu.
- b. Desparekotasunak genero-ikuspegitik jorratzen dituzten ekintza eta jarduera espezifikoak ezartzea. Gehienez 3 puntu.
- c. Proiektuetan jasota dauden jarduketa, jarduera eta ekintzek lotura duten sailaren eta hura osatzen duten zerbitzuen helburu espezifikoekin: gehienez 7 puntu.
- d. Haur eta nerabeen ikuspegia jorratzeko ekintza eta jarduera espezifikoak ezartzea, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko neurrien bidez, autonomia-erikidegoan ezin estatuan indarrean dagoen legeriari jarraikiz (2024ko otsailaren 15eko Legea, Haur eta Nerabeena; eta 8/2021 Lege Organikoa, haur eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa): gehienez 3 puntu.

## 12. Eskabideak birformulatzea

Diru-laguntzaren helburua pertsona eskatzaileak garatu beharreko jarduerak finantzatzea bada eta ebazpen-proposamenaren arabera dirulaguntzaren zenbatekoa eskatutakoa baino txikiagoa bada, entitate onuradunari eskabidea birformulatze eskatzerik izango da, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzara doitu ditzaten. Edonola ere, eskabideen birformulazioak errespetatu egin beharko ditu dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua, baita eskabideetarako ezarritako balioespen-irizpideak ere. Proiektuak birformulatzeak ez du inola ere ekarriko horien balioespen teknikoak berriro egitea.

## 13. Balioespen-batzordea eta prozeduraren instrukzioa

Balioespen batzordea osatuko dute Gizarte Politiken Saileko zerbitzu bakoitzeko teknikari banak, batzordeburu batek (Atal Teknikoko teknikaria) eta idazkariak (Komunitate Jardueren teknikaria).

Halaber, Gizarte Politiken Saileko administrazio orokorreko teknikaria izendatuko da organo instrukzio-egile. Hark ofizioz egingo ditu dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

Eskabideak hobeto ebaluatu ahal izateko, balioespen batzordeak, organo instrukzio-egilearen bidez, eskabidean jasotako informazioa zabaltzeko eskatu ahal izango die eskatzaileei, eta beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango dizkie udal-zerbitzuei.

Balioespen batzordeak, deialdian ezarritako irizpideen arabera aurkeztutako eskabideak ebaluatu ondoren, txosten arrazoitu bat emango du, egindako balioespenen emaitza eta eskabideen arteko hurrenkera zehazteko.

Instrukzio-organoak, dosierra eta balioespen batzordearen txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Udalaren webgunean argitaratuta jakinaraziko da, baita bitarteko elektronikoen bidez ere. Entitate eskatzaileei 10 egun balioduneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, instrukzio-organoak, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 23.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, eta bertan adieraziko du zer entitate eskatzaile proposatzen dituen dirulaguntzak emateko, zer zenbateko eta zer balorazio-irizpide erabiliko diren ebaluazioan. Alegaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

#### **14. Deialdiaren ebazpena, organo eskuduna eta epea**

Tokiko Gobernu Batzarrak izango du deialdia onesteko eta ebazteko eskumena. Hala ere, 2024ko irailaren 20ko Eskumenak Eskuordetzeko Erabakiaren arabera, berariaz eskuordetzen zaio Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkariari laguntza-deialdi hau ebazteko eskumena, onuradunei dirulaguntza jasotzeko izapideak arintzeko, administrazio-prozeduren eta kudeaketako jarduera materialen arrazionalizazio- eta arintasun-printzipioan oinarrituta, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.d) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Deialdia ALHAOn argitaratzen denetik kontatuko da epe hori. Prozedura ebazteko ezarritako gehieneko epea igarota, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute eskatzaileek.

Era berean, Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzen zaizkio, baita ere:

- Konpromisoa onartzea eta gastua aitortzea.
- Diru-laguntzaren justifikazioa egiaztatzea.
- Ebazpena aldatzea.

– Baita kudeaketa-prozedurako gainerako egintza guztiak ere, baldin eta araudi erregulatuak exijitzen badu dirulaguntza ematen duen organoaren erabakia edo ebazpena behar dela horiek izapidetzeko, egintza horien aurka jarritako berraztertze errekurtsoaren ebazpenari buruzkoak barne.

#### **15. Jakinarazpenak egiteko bitartekoak**

ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren iragarki-taularen bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraituz.

#### **16. 2023ko udal ordenantzan berdintasunaren arloan ezarritako betebeharrak**

Dirulaguntza jasotzen duten entitateek betebeharrak hauek izango dituzte:

– Hizkera eta irudi ez-sexista eta inklusiboak erabiltzea diruz lagundutako programa, proiektu edo jarduerak sustatzeko egindako kartel, testu eta dokumentuen edukietan.

– Sexu eta/edo generoagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa dakarren programa, proiektu edo jarduerarik ez sortzea.

– Egiten diren estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sistematikoki sartzea sexua/generoa (emakumea/gizona/ez-bitarra) aldagaia.

– Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala integratzea, herritarren egoera eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartuta, generoaren eta beste desberdintasun-ardatz batzuen araberrako desberdintasunak agerian jartzeko edo arintzeko helburu eta jarduketa espezifikoko txertatuta, eta ekintza positiboak aurreikusita.

### 17. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza zatika ordainduko da: dirulaguntza osoaren ehuneko 80 justifikazioa aurkeztu baino lehen ordainduko da, eta gainerako ehuneko 20a jarduera amaitzen denean eta jarduera osoa gauzatu dela justifikatu ondoren. Nolanahi ere, dirulaguntzen ildo bakoitzaren berariazko oinarrietan ordaintzeko beste erregimen bat ezar daiteke.

Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, onuradunak eskabidean horretarako adierazi duen kontu korrontean.

Nolanahi ere, aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa eta azkenean gauzatu eta justifikatutakoa bat datozela egiaztatuko du Gizarte Politiken Sailak, justifikazioa egiaztatzeko fasean. Azkenean gauzatutako zenbatekoa txikiagoa bada, murriztu egingo da hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe bidegabe justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli behar izatea, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37.1 b) eta c) artikuluan ezarritako kasuetan.

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona edo entitate onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

Nolanahi ere, ezingo da dirulaguntza ordaindu, harik eta pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzuli behar delako ebazpen baten ondorioz zordun bada ere.

### 18. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea

Entitate onuradunak diruz lagundutako jarduera osorik azpikontratatu ahal izango du (ehuneko 100era arte), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako baldintzetan, zeinaren arabera azpikontratazio-ehuneko lege horretan ezarritako ehuneko 50etik gora handitu baitaiteke, betiere dirulaguntza arautzen duten oinarrietan jasota geratzen bada.

Orobat, aipatutako 29. artikulua 7. puntuan xedatutakoarekin ildotik, onuradunak berekin lotura duten pertsona edo entitateekin hitzartu ahalko du jarduera gauzatzea, baldin eta organo emaileak aurretiaz baimena ematen badu (azpikontratatzeko baimena eskatzeko eredia baliatuz) eta kontratazioa merkatu-baldintzen arabera egiten bada.

Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 eta 16. artikuluetan xedatutakoaren ildotik, Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diruz lagundutako jardueren azpikontratazioa baimentzeko eta lotura duten pertsona edo entitateekin jarduera gauzatzeko eskumena.

### 19. Dirulaguntza justifikatzeko modua

Dirulaguntzaren justifikazioa egiteko, kontuan hartuko dira Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrean ezarritakoa eta honako baldintza hauek:

– Justifikatzeko epea:

Hiru hilabeteko epean justifikatu beharko dira jasotako dirulaguntzak, programa edo jarduera amaitzen denetik kontatuta, edo ematen denetik aurrera kontatuta, gauzatu ondoren emandakoa bada.

– Formatu digitalean aurkezten diren frogagiriak:

PDF formatuan aurkeztu beharko dira, eta digitalki sinatuta egon beharko dute ezinbestean. 2. atalean adierazi bezala ordenatuta egon beharko dute, kapituluaren edo gastu-motaren arabera multzokatuta.

Gomendioak: artxiboei zein atalei dagokienez, artxibo bakoitzaren gehieneko tamaina 20MB izango da, eta gehieneko bereizmena, hazbeteko 200 puntukoa, zuri-beltzean.

– Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotakoaren justifikazioa.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, ez Vitoria-Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik, eta berariaz adierazi beharko da zein kostu egozten zaion udalak emandako dirulaguntzari.

Egindako gastuaren justifikazioko kontu arrunta aurkeztu beharko dute dirulaguntzaren onuradun diren entitateek hura justifikatzeko, ondoren adierazten denaren arabera:

a) Egindako proiektuaren azalpen-memoria, lortutako emaitzak eta euskararen erabileraren jarraipena adierazita.

– Dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egindako azterlan, programa, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana.

– Euskararen erabileraren jarraipena egiteko fitxa.

Gainera, emakumeen eta gizonen egoeran duen eragina ezagutzeko, eta diruz lagundutako jarduerak horretarako aukera ematen badu, sexuaren/generoaren araberako informazio hau aurkeztu beharko da:

– Emandako zerbitzuaren onuradunak edo azken erabiltzaileak (emakumeak).

– Entitateko titularrak eta plantilla.

– Aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko beste adierazle batzuk.

b) Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, oinarri hauei erantsitako justifikazio-kontu arruntaren ereduaren arabera. Atal hauek izan beharko ditu:

– 1. atala: funts propioen edo beste entitate batzuetatik jasotakoaren justifikazioa. Proiektua edo jarduera entitate publiko edo pribatu batek baino gehiagok finantzatzen badute edota entitate onuradunaren funts propioekin finantzatzen bada bete beharko da atal hori.

– 2. atala: diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda. Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da atal hau. Gastu motak zerrendatu eta alderdi hauek zehaztu beharko dira: hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa. Fakturak eta ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak erantsi beharko zaizkio. Eskudirutan ordaintzekotan, lege ezarritako mugapena aintzat hartu beharko da —webgune honetan kontsulta daiteke: [www.agenciatributaria.es](http://www.agenciatributaria.es)—.

Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira jasotze-agiriak.

Edonola ere, jasotze-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, kasu horretan dagokion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean. Jasotze-agiriak datu hauek hartu beharko ditu barne:

– Jaulkitzailearen zein jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.

– Gauzatutako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta haren prezio osoa.

– PFEZren atxikipena —dagokion zerga-agentzian ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsi behar da—.

– Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

– 3. atala: proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.

– 4. atala: langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak. Dirulaguntza jaso duen proiektuaren langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatzeko bete beharko da atal hau, eta entitate onuradunaren kontura izan diren nominak, langileen zerrenda izenduna (RNT) eta kotizazioen likidazio zerrendak (RLC) erantsi beharko dira.

– 5. atala: gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa. Atal hau beteko da bidaiari, dieta, joan-etorri, mantenu eta antzekoen gastuak justifikatzeko. Gastu horiei dagozkien merkataritza-agiriak erantsi egingo dira –erabilitako garraiobidearen txartelak, tiketak, fakturak...–, zenbatekoa zehazteko oinarri baitira. Era berean, erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko da, honako hauek jasoko dituen:

– Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea burutzetik sortu direla eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.

– Onuradunak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duela jasotzen duen adierazpena.

– Entitate edo pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion zeharkako kostuen adierazpena, normalean onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera dagokion zatian; benetan egozten den kopurua ezingo da izan deialdi honen oinarrietan ezarritako ehunetik gorakoa.

– Pertsona edo entitate onuradunaren adierazpena, non zehazten diren diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak —zenbatekoak eta jatorriak—, edo, hala izanez gero, bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu ez dela adierazten.

– Kontratu txikien zenbatekoa gainditu arren dirulaguntza jaso dezaketen gastuak. Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 39.999,00 eurotik gorakoa bada obra-kontratuetan (BEZik gabe), eta 14.999,00 eurotik gorakoa (BEZik gabe) hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, pertsona edo entitate onuradunak gutxienez hiru hornitzaile eskatu beharko die eskaintza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasunak emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski erakunde, edo dirulaguntza eman aurretik gastua egin badago.

## **20. Zeharkako gastuak**

Zeharkako kostuak edo gastu orokorrak onartuko dira, dirulaguntza gisa emandako zenbatekoaren ehuneko 6raino. Halakotzat joko dira diruz lagundutako jarduera zehatzari zuzenean egotzekoak ez izan arren hura egiteko beharrezko direnak, esate baterako, entitatearen beraren mantentze-gastuak (argia, telefonoa, gasa, ura, alokairua, garbiketa eta aholkularitza).

